

## (EUSKALTZAINDIAREN ITZALDIAK DONOSTIAN)

1954 - Abendua - 23

### DEIKIA IZENETAN

Jaun-Andreok: Gutxi oitutako gai bat dakartzutet, gaur, nere entzuleoi: «Euskerazko *vocativoa*»; edo-ta «*Vocativoa* euskeraz».

Gutxi oitua itzaldi oietan. Gramatikari dagokion gai bat.

Orain arte, beti ez bada ere ia beti, Literaturari dagokion gairen bat erabilli izan da mai ontatik. Literaturari, Literaturaren Edestiari, Literaturaren Atzeari, gure Orixek'k liokean bezela.

Gaur, ordea, ni Gramatikari atxikiko natzaio, Gramatikari elduko diot. Eta Gramatikako zati txiki bati eldu ere: Declinazio edo *Sufijos de relación* erderaz deritzaion zatiari; eta zati ontan, *caso* bakar bati: *vocativoari*, ots, deikiari.

Izkuntza-zale guztiok berexkuntza asko arkitzen dizkiote gure Euskeraren Gramatikari. Euskeraren legeak ez dira ondo sartzen, gure inguruan mintzatzen diran izkuntzen Gramatiketan. Phonetikatik asita, Sintaxisen bukaeraraño; gure mintzatzeko molde asko, ez dira beste gure inguruko mintzatzeko moldeen antzekoak. Gure Gramatikak ba'ditu, beste zenbait Gramatiketan ondo kabitzen ez diran zenbait izaera.

Izaera oietako bat aipatu nai dizutet gaur.

«*Vocativoa* euskeraz ez da beste iskuntzetan bezelakoa». Orra nere gaurko itzaldi onen gaia. Nolakoa da, bada? Nola erabiltzen degu euskaldunok, gure izketakoar, *caso vocativo* dalako ori?

### VOCATIVO - DEIKI

Guztiok dakizute zeri deritzaion erderazko Gramatiketan *caso vocativo*. Adigarririk ezagunenak aipa ditzagun: *Cordero de Dios, que quita los pecados del mundo, ten misericordia de nosotros...* Orra or *vocativo* bat: *Cordero de Dios...* Zergatik deritzaion *vocativo*, *Cordero de Dios* orri, itz-sail ortan? Ez da erantzuten zail: «dei-egiteko» dagolako. Dei egin, *vocare, invocar; vocativo, invocativo*.

Beste adigarri bat: *Gloria a tí, Serafín del Carmelo*.

Beste bat: *Cerca de Tí, Señor*.

Beste bat: *Omnia propter temetipsum operatus es, Domine: Todo lo hicistes para Tí, Señor*.

Beste bat: *In Te, Domine, speravi: En Tí, Señor, esperé...*

Orra or, zer dan *caso vocativo* dalakoa: *Cordero de Dios, Serafín del Carmelo, Señor, Señor...*

Bañan esan lezake norbaitek: «*Vocativo* diozu, bañan ez al-dira ba, *caso nominativo* iru izen oiek, ola esanda?». Bai, eta ez. Erdaldunentzat, esan-tankeraz, esateko formaz, berdin izan ditezke *vocativo* bezela *nominativo*...

egoeraz, ordea, ez; egoeraz, frasean, esaera osoan daukaten lekuz, eta batez ere esan-nai danarekin daukaten artu-emanaz, ezin izan ditezke nominativo, *vocativo* baizik. Len ere esan dizutet: vocativoaren egitekoa, dei egitea da; nominativoaren egitekoa, aditzarar egille edo euskarri izatea dan bezela. Lenengo adigarrian, *Cordero de Dios* diogunean, Jaungoikoaren Bildotsari dei egiten diogu, ta gero esaten, erruki dakigula. Berdin beste adigarrietan ere. Ba' dirudi *vocativo* oietako bat esaten degunean, Ebanjelioko arako esakun ura esaten deguna: *Adolescens, tibi dico, surgé: Joven, a tí te digo, levántate*: Gazte, zuri diotzut, jeiki zaite. *Vocativo* bakoitzak, *vocativo* orok, bere baitan antxe darama «zuri diotzut» ori «Zuri diotzut» edo-ta beste onelako zerbait: «Adi ezazu» edo «Aizu, zu» edo-ta «Aizak, i»... Orixe da *vocativo*aren egitekoa, guna, muña, esan-nai ezkutua, berarizkoa: dei egitea.

Esan-nai ortatik, frasean daukan egoera ortatik, bereizten da *vocativoa* erderaz. Dei-egin-bear ortatik; dei-egin-nai ortatik bakarrik. Erderaz ez dago *vocativoa* nominativotik bereizteko beste erarik. Geienez ere, tarteka-tarteka *Oh*'ren bat ipiñiko zaio: *Oh Cordero de Dios! Oh Señor! Oh Serafín del Carmelo!* etab.

Latiñez, ordea, eta griegoaz ere, ba' dago beste bereizgarririk. Latiñez eta griegoaz, declinazio edo dalakoa dago, casoak alkarrengandik bereizteko. Orregatik esan oi da frase oietan, *Domine* eta ez *Dominus*, *Kyrie* eta ez *Kyrios*. *Dominus* nominativo dan bezela, *Domine* *vocativo* da. Izen biak bat diran arren -biok gauza bat bera, «Jauna» alegia, esan nai duten arren- ala ere bi bukaera alkarrengandik bestelakoak darabilzkit: *Domine* eta ez *Dominus*, *Kyrie* eta ez *Kyrios*. *Desinencia de vocativo* deritzaio bukaera bereiz orri, *desinencia de vocativo*, *vocativo*-bukaera, dei-bukaera. Eta orixe da latiñez caso *vocativo*-aren berexgarria. Erderaz, ordea, ez bait-dago olakorik.

### EDER GALANT ORI...

*Vocativoa*, deikia, zer dan ikusi degun ezkerro, ikustagun orain zer lege darabillan gure Euskerak *vocativo* oni, deiki oni buruz.

Adigarri bat ipiñiko dizutet begien aurrean lenengo. Guztiok ezagutzen dezuten koplatxo bat:

Maria, nora zoaz,  
eder galant ori?

Ona emen euskera jatorrezko deiki, *vocativo* bat. Koplatxo au, itz lauz beste onela litzake: «Maria, eder galant ori, noa zoaz?».

Erderaz nola esango genduke kopla onek diona? nola biurtuko genduke erderara? *Hermosa, esbelta María, ¿a dónde vas?*

Ona emen deiki *vocativo* bat. Nola egiña? *Eder galantari*, ORI bat ipiñita. *Eder galant ORI*.

*Ori* orrek erderaz ez du biurpenik, ez du traduziorik. ORI, itz sail ortan ez da beste-tan bezela *demonstrativo de proximidad* (ots, *Ori*, igual a *ese*:) beste zerbait da baizik. Orregatik ez da erderara biurtzen ESA *hermosa, esbelta* esanaz, *hermosa, esbelta* baizik. Latiñez, ordea, lenengo declinazioak *vocativo* bereizik baleuka, *vocativoan*, *vocativo-forman* ipiñiko litzake ots, emakumea dan bezala (lenengo declinaziokoa dan bezela) *hermosa, esbelta* (ots, emakumea dan bezela) *hermosa, esbelta* litzake ta ez *hermosus, vocativo*.

-forman alegia. Euskeraz, berriz, olakoetan ORI bat erasten degu. ORI crixe da euskerazko vocativoaren, deikiaren bereizgarri jatorra.

Orra bada nola egiten dituan gure Euskerak bere vocativoak, bere deikiak. Naiz eta ez guztiak eta beti. Bañan egin, bai.

Deitzeko zeregiña duan itzari, deitzeko dan itzari, deikiari, vocativoari, latiñak *desinencia de vocativo* erasten dion bezela, Euskerak ORI bat erasten dio. Auxe da ontako gure legea. Lege jatorra.

### DEIKI ERRIKOI...

Laister ipiñiko dizkitzuet adigarri geiago, eta orduan ikusiko dezute obeto or diodana: Gure Erriak olaxe egiten dituala alegia bere deikiak.

Beste koplá errikoi bat, lenaz gain, esango dizutet emen, bat bakar-bakarrik, Bizkai-koa, trikitietan kantatu oi dana bera. Begira:

Mandadu egin deusat  
ama zeureari:  
gorde zaizala neutzat  
prenda eder ORI.

Erriak ola egin izan du, eta ola egiten ere du.

Bañan (arritzeko ta ez-arritzeko gauza) gure idazleak, Axularrengandik asi ta orain ogeitamarren bat urte arte, ez diote oartu, kontu artu, gure erriaren vocativo-era oni. Bat bakarrik ere ez da, nik dakidanik, ia gaurdaño, vocativo-era au Literaturen mallara oartuki jaso duanik.

*Oartuki* diot. Oartzeke ta kontura-gabe, lantzean-lantzean, bai, arkitzen dira olako txinpartatxuren batzuek idazle zaharretan; bañan ez bear aña, alderatzeko ere; ustekabe «eskapatuta» bezela baizik; ez iñolaz ere, oartuki ari balira, ipiñiko lituztekean añean. — Mikoleta'ren adigarri bac dakar Azkue Jaunak bere *Morfologia'n* (núm. 433): *Oa, bada, eske, ardi-seme ori!* Adigarri jatorra, benetan! — Auxe bezain jator ba'dakarte beste adigarri bat Kapanaga'ren eta Bizkai'ko *Doctrina Christianea* diralakoak ere (Vinson, Essai. . 24 bis) *Confiteor* edo Confessiñoea deritzan otoitzean: *Ni betacarieu confessetan nachaco... berorri Ayte Espirituelorri... errequetá deuzet... berorri Ayte Espirituelorri...* Olaxe, *Espirituelorri*, deiki-noriki jator bezela. (Bear bada, *Confiteor*'en formula au antziña-antziñatikakoa zan Bizkaia'n; otoitzeko izenak ere olaxe adierazten dute... *Jandone Mi-quel, Jandoneanes, Jandone Peri eta Paulori...*) — Beste olako ORI geiago ere agiri dira Leizarraga'ren *7 stamentv berria'n*; eta Lardizabal'en *Testamentu zar ta berriko kondai-ra'n*; relativo-ondoren ezik, ez adjetivo jator ondoren. (Lard. XVII-9: *Nor aiz, Erregea esnatzen oska agoen ori?*). Nolanai dala, naiko jator; ez, ordea, bear litzaken guztietan; ez, idazleak oartuki ari balitz, ipiñiko lituzkean guztietan. Bear bada, euskeraz Antzerkilari asko, dramaturgo asko izan bagenitu, orduan bai, orduan ausaz olako adigarri ugariagorik ikusiko genduan gure Literaturan. Alkarrizketa errikoi bizia egin bearrez, olako ORI geiago «eskapatuko» zitzaizkien gure dramaturgoei (Latiñez ere berdin gertatzen bait-da...)? Izkuntza bare, lauan, ordea, olako ezkutuko izkerakiak, beren ezkutuan iñor oartzeke geldi oi dira beti ere, ondikotz! Sobra ere, idatzi-bearrak, lenengo erderaz-

«Arritzekoa, esan det, eta ez arritzekoa». Ez bait-da, izan ere, arritzeko, idazleai, eskribitzalleai olakorik gertatzea. Len ere iñoiz esan izan det eta, eskribitzalleak arraixku ortan bizi dira: beste izkuntzetako klasikoen ereduai begira daudela, errex ematen diote atzea beren erriari, erri xumeari. Eta orrela, uste ez dutela ere, beste izkuntzen, izkuntza arrtzen Gramatiketara jotzen dute. Nai ez dutela ere... Ez da, beraz, arritzeko.

Iñork esan oi dit iñoiz, erri-zaletxo ez ote-naizen euskera-gaieran. Erria, erri xumea, idazleen gaintxotik ipintzen ez ote-dedan... Bai bear ere zenbait aldiz! Begira, bestela, vocativoaren gertakari oni. Lareun urte igaro bear izan dira, idazle-jendeok konturatua izan geraneko, gure erriak bere deikiak nola erabiltzen dituan, bere vocativoak nola erabiltzen dituan. Arritzekoa. Bañan baita ez-arritzekoa ere. Berdin gertatu izan bait-da beste zenbait bereiztasun jatorrekin.

Ez uste izan, orratik, ori gure arteko akatsa bakarrik izan danik. Beste errietan ere berdin ibilli izan dira jatortasun-gai ontan. XIV ta XV gizaldiko idazle erdaldunakin ere berdin gertatu izan zan. Latiña zerabilten aiek ere eredu ta ixpillu. Latiñari begira bizi ziran. Eta latiñezko paragrafoetan kalkatzen zituzten, sobera, beren erderazko parrafoak. Santa Teresa batek etorri bear izan zuan mundura, molde aiek austera, latiñezko moldeak apurtzera, eta gatzelani jatorrezko molde zar errikoietan beren pentsamentuak moldatzen idazleai erakustera... Toki guztietan berdin.

### EDESTI APUR...

Nik ez dakit noiz ezkeroztik «berentzakotu» duten euskal-idazleak ORI-dun vocativo jator ori. Nik emen esan dezakedana, auxe da: ogeitamar urte igarok dirala ondotox, gauza oiek orla erakusten asi nintzala gure Gasteizko Seminarioan. Beste iñoren berri gabe. Ain xuxen, «Maria, nora zoaz»-en kopia eder ortatik igerri ta konturatuta.

Eta gure erakutsaldi aietan orrela jarduten genduala, andik puska batera izan zan -eta ez lenago- jakin eta ikusi nuana, gure Azkue zanari ere etziola oartzeko iges egin gure Erriaren ORI jator orrek... guk ez bezelato azalpen bat, bestelako leku bat, bestelako explicacio bat ematen bait-zion ezik ark euskera jatorrezko eraxkun bereiz orri... Olakotetan ORI ori, ZU'ren orde z dagola esan zuan. Eta ez bait-det uste leku ori ondo emana dagonik... (1).

Egin dezagun Azkue zanaren iritzi oni buruz kritika apur bat.

Egia da vocativo oro, deiki bakoitza, ZU'ren bati dagokiona beti. Deia, beti ere zu'ri egiten zai; ez neri, ez eta ari are; beti ere zu'ren bati. Bañan orrek ez bait-du, ZU ta vocativoa elkarrekin nahasi bear diranik esan nai. Bi gauza dira «vocativoa beti zu'ri egokitzea» eta «vocativoaren ORI ori zu'ren orde z egotea». Egoki, bai ba'dagokio; bañan ezdago «aren orde z». Elkarrekin dabilta; bañan ez elkarren orde z (2).

Bañan, jarrai dezagun aurrera.

(1) R. M.<sup>a</sup> de Azkue - *Morfología vasca* - loc. cit. (núm. 433).

(2) Obsto esan diteke, beste onako au: vocativoari eta izketa-lagunari (*interlocutoreari*, alegia) beti ere iztunaren urkoak diralako nunbait, Euskerak *demostrativo de proximidad* bat-edo, ORI bat-edo, erasten diola. Edo-ta berdin dana, zu'ri dagozkion itzai, gure izkuntzak ORI bat erasten die!a. Ni'ri dagozkienei AU bat erasten dien bezela. Eta gu'ri ta zuek'i OK erasten dien bezela. Ole, ani, zoro AU's eta «nik, zoro ONEK» esan oi bait-da; eta berdin. baita «eu. gizonok» eta «zuek. emakumeok». edo-ta «zuek, emakumeok» Axular'ek esan, oi duan bezela...-a

Azkue Jaunak ezik, beste zenbaitzuk ere oartu zioten gure vocativoetako ORI oni; eta erabilli ere, erabiltzen asi ziran beren idaz-lanetan urte aietantsu beretantsu. Bañan ez bait-zuten ORI onen zabalguneguztia bear bezela aztertu, ez bait-zioten zabalguneguztia eder arri bear bezela oartu... Adibidez erakutsiko dizutet, esan nai nukeana.

Orain arte adigarri bi bakarrik ekarri dizkitzutet begien aurrera. Ori bai, adigarririk argienetakoak, guztiontzako ezagunak, ta inortxok ere ukatu ezin ditzazkeanak:

Maria, nora zoaz  
eder, galant ori?  
eta  
Corde zaizala neutzat  
prenda eder ori.

Edozeñek igarri dezake, olako adigarriak asko ta asko ugaritu ditezkeana. Ez, bear bada, bi oiek bezela, gure Koplategi jatorretik artuta; bañan bai, guztiok egunoro erabiltzen degun izkuntzatik jasota.

Adibidez: «Zer abil or, i, kaiku aundi ori?»; «Atoz gaxori atoz»... ORI, ORI...

Bañan ez bait-da ORI bakarrik. Entzun onako beste adigarri oiek ere:

«Ekatzu gaxorrek, ekarri».

«Nork egin dizu zuri, gaxorri?».

«Nor nai dek ibiltzea irekin, alprojatzar orrekin?».

«Ementxe dauzkat gorderik nik zuretzat prenda eder orrentzat»...

Ikusten dezutenez, gure vocativoa, gure deikia, ez da declinazioko *desinentzi* baka<sup>r</sup> bat; *desinentzi* guztiak dituan izketa-malla bat obeto baizik... ORI, ORREK, ORRI, ORRENTZAT, ORREKIN... Eta orixe da lentxuago aipatu ditudan idazleak, bear bezela oartu etzutena.

Aiek, beti ta beti, vocativo-mallan ipiñi-bearreko itz guztiak, ORI erasten zioten, ortarako ORI besterik ezpaitlitzan. Ez noa aien adibide askorik aipatzera. Or aipatu dizkitzutedan adibide oietan, aiek onela idatziko zuten: *Atoz gaxori bezela, Ekatzu gaxori*; eta berdin «*Ementxe dauzkat nik zuretzat. prenda eder ori, gaxorrek eta prenda eder orrentzat* esan bearrean.

Geienetan gañera, ORI-ren orde, OI erabiltzen zuten. Eta ola zenbait otoitzetan, sarri erabilliko zizkitzuten onelako edo onen antzeko deikiak: *Emaiguzu, Jaunoi; Jaunoi, entzun egizuz geure ot'itzak; Eskarrak zor deutzuguz, Jaunoi*... JAUN ORREK eta JAUN ORRI esan bearrean.

Olxake bait-da, izan ere; ORI, ORREK, ORRI, ORREKIN, ORRENTZAT... gauzak berak dakarren bezela.

#### NOIZ ETA NOLA...

Galde bat egingo didazute, ausaz, emen:

-Noiz bearke da ORI, noiz ORREK, noiz ORRI etab.?

-Gauzak berak dakarren bezela.

-Zer da, ordea, «gauzak berak dakarren bezela» ori?

-Ara: lentxuago esan dizutet, vocativo oro, deiki guztiak, ZU-ren bati dagozkiola;

ZU orrek, urruti-gabe inguruan daukan aditz edo berboren batekin zer-ikusiren bat izango du askotan. Zer-ikusi orren neurrian eta araueran, ZU ori, aldiz *zu* dan bezela, aldiz *zuk* izango da, eta aldiz *zuri*, eta aldiz *zugana* etab. berboarekin duan lokerak eta artu-emanak agintzen duan neurrian.

Orra bada: *zu*'ri dagokion ORI orrek ere, neurri ber-bera darabilki. Bear bada, *zu* ori ezkutuan egongo da; bañan *zu*'k agirian balego izango lukean forma ber-bera, izan bear du ORI'k ere: aldiz *ORI* aldiz ORREK, aldiz ORRI, aldiz ORREGANA etab.

Beste itz batzuetan: tartean dabillen ZU ori, aldiz berboaren egille izango da, edo-ta *norki* (nominativo) ZU, ZUK; aldiz *noriki* (dativo) ZURI; aldiz *zerki* (acusativo) ZU; aldiz *norenki* (posesivo) ZURE; aldiz *norentzaki* (destinativo) ZURETZAT; aldiz *lagunki* (ablativo *con*) ZUREKIN etab. Eta neurri berean, baita deikia berà ere: aldiz *norkia* izango da, ORI, ORREK; aldiz *norikia* ORRI; aldiz *zerkia* ORI; aldiz *norenkia*, ORREN; aldiz *norentzakia*, ORRENTZAT, aldiz *lagunkia*, ORREKIN...

Orain obeto ulertuko dituzute len aipatu dizkitzutedan adigarri erritar-erritar aiek: *Zer abil or, I, kaiku aundi ori?* I'ri, ORI dagokio.

*Ekatzu gaxorrek, ekarri.* Adigarri ontan *zuk* bat dago ezkutuan; eta *zuk*'i ORREK dagokio: *Ekatzu zuk, gaxo orrek*

*Nork egin dizu ZURI, gaxo ORRI?* ZURI'ri ORRI dagokio.

*Nor nai dek ibiltzea IREKIN, trakets aundi orrekin?* IREKIN'i ORREKIN.

*Ementxe dauzkat gorderik nik ZURETZAT, prenda eder ORRENTZAT.* ZURETZAT'i ORRENTZAT dagokio.

Eta berdin litzake ORRENGANA beste adigarri onetan: *Eramangaitzazu zuk mundu ontatik ZUGANA. Jaun aundi orrengana.* Berdin baita ORRENGAN beste onetan: *ZUGAN, Jaun aundi ORRENGAN daukat nik nere itxaropena.* Berdin baita ORREN ere, beste onetan: *Egunen batean ZURE ondora, Jaun aundi ORREN ondora bear degu danok...*

Auxe da gure deiki jatorraren izaera eta legea.

### DEIKI UTS, DEIKI NAHASI; DEIKI ASKATU, DEIKI LOTU...

Eta -orain berriz ere atzera begiratur-, ontatik dator arako, asieran esan degun Euskeraren berexkuntza bereiz ura. Beste izkuntzetan, vocativoa, casu bakar bat da, *caso absoluto* bat, itz askatua, alegia; gramatikaz beintzat berboarekin lokerarik ez duana: itz askatua, *caso absoluto*.

Euskeraz, ordea, gure deikiak berboarekin geienean du gramatika-lokera; izan ere, berez bait-du deikiak berboarekin zer-ikus; eta zer-ikusi au aldatzen dan araueran eta neurrian, aldatzen da baita, izan ditezken *caso* ta *desinentzi* guztietara ORI orren azala eta forma. Casu guztietara: ORI, ORREK, ORREN, ORRI, ORRENTZAT, ORREKIN, ORRENGAN, ORRENGANA etab. etab.

Ez da casu bat; kasu guztiak dira. Obeto esatako, *izketa-malla* bat da, -*una categoría de locución*-: alkar-izketa-malla -*categoría de interlocución o diálogo*-. Gerotxuago agiriko bait-da obeto.

Bitartean, esan dezagun beste zer-edo-zer.

Gure deikiak -eta berdin aren inguruan dabillen ZU arek ere- askotan berboarekin,

*absoluto*, alegia... Askotan, geienetan, bear bada, ola izango da. Bañan ez bait-dezakegu esan beti-beti ola danik. Zenbait aldiz arkitzen ditugu deikiren batzuek askatu-tankeran, *absoluto*-tankeran ere. Adibidez, idazkien, kartaen asierako arako *Querido padre* ta *Estimado amigo* ura. Ala berean, baita, itzaldien sarrerako arako *Señaras*, *Señores* ura. Olakoe-tan, berboagandik urrutitxo dagolako edo, deikiak askatu-tankera artzen du. Berdin baita onako ontan ere: *Aita, eguna da*, eta olakoetan; deikiari dagokion ZU arek berboarekin zer-ikusirik ez duanean, alegia (*Aita, eguna da*). Bañan gañerakoan — askotan ta askotan — deikiak herboren batekin — ingurueneko berboarekin — zer-ikusirik izan oi bait-du.

Zer-ikusirik eta lokerarik ez duan deikiari, guk, *deiki-uts* (*vocativo puro*) esango ge-nioke. Lokerarik, zer-ikusirik duanari, berriz, *deiki nahasi*: aldiz DEIKI-NORKI (*voca-tivo-nominativo*); aldiz DEIKI ZERKI (*vocativo-acusativo*); aldiz DEIKI NORIKI (*voca-tivo-dativo*); aldiz DEIKI NORENTZAKI (*vocativo-destinativo*) etab. etab.

Ona emen orain esan-bear bat: Deikia deiki uts danean, berboarekin lokerarik eta zer-ikusirik ez duanean, ba' dirudi ez dagokiola ez ORI'rik, ez bestelakorik.

Bañan ori gero ikusiko degu obetotxoago. Eta jarrai dezagun aurrera.

#### ADJETIVO-ONDOTIK... ADJETIVO GABE?

Oar bat zor dizutet, ordea, aurrera jarraitu baño lenago.

Beti ere ORI ori, adjetivoren baten ondotik datorrela ikusiko zenduten. Izen sustan-tivo baten ondotik ez; beti ere adjetivoren baten ondotik: *galant ori, gaxo ori, gaxo orri, gaxo orrek, alprojatzar orrekin, Jaun aundi orrengana, prenda eder orrentzat, kaiku ori* (jakiña, *kaiku* itz au adjetivo bezela erabiliz)...

Oar onek asko estutzen du, gure deiki bereiz onen zabalgunea. Bereiztasunari ta jatortasunari bat ere kalte egin gabe, ori bai; bañan asko estutzen duala aren zabalgunea. Adjetivo-ondotik bakarrik ikusten degu ORI ori; deikia adjetivoren batekin datorrenean. Eta adjetivorik ez duanean, zer? Sustantivo soillaren ondotik —*Jaun aundiaren* ordez, *Jaun soil-soillik* danean— zer?

Len aipatu dizkitzutedan oker-idazle aiek, berdin arabiltzen zuten beren betiko ORI ura, izen sustantivo baten ondoren ere: adibidez, *Jaun* soillaren ondotik, JAUN ORI, edo-ta berak oi zuten bezela JAUNOI, JAUNOI...

Orain beste galde bat: Erriak nola egiten ditu bere deikiak, adjetivo-gabeko sustan-tivo soilletan, ots, *Jaun* bakarrik datorrenean, adibidez?

Gaurkoari bagagozkio, danok dakigu nola esan oi dan *Bai, Jauna* ta *Ez, Jauna*, olaxe, nominativo bezelaxe, atzizki artikulua -a ondotik duala, *Bai, Jauna, Ez, Jauna*.

Bañan berdin, baita, ba'dakigu *Bai, motell* eta *Ez, motell* esan oi dana ere, olaxe, atzizki -a artikulua gabe: *motell, motell*. Berdin, baita, *Bai, adixkide* ta *Ez, adixkide* ere...

Ikusten degunez, gai onetan bi eskutara jokutzen du gure baserritarren euskerak. Bañan nik ez bait-dakit zergatik; bañan benetan jator eta jatorrago arkitzen ditut nik ona-ko artikulua gabeko deiki oiek eta oien antzeko beste asko: *Kaixo gizon! Kaixo lagun (zar)! Aizu gizon, Aizu aixkire*... Eta onako koplaz zahar oietakoak gañera:

Madalen Busturiko:  
gabian-gabian  
errondian dabilta  
zure portalian.

—Josetxo Olaberriko:  
zer dezu negarrez?  
—Amak ezkontzerako  
dirurik eman ez.

eta oiek baño ondotoxoz zaharragoko - XIV gizaldiko beste ontakoak:

Arren, ene Andra Milia Lastur'ko,  
Peru Garzia'k egin dauku laburto...

Olaxe Milia Lastur'ko to Josetxo Olaberri'ko ta Madalen Busturi'ko; ta ez Madalen Busturikoa ta Josetxo Olaberrikoa ta Milia Lastur koa.

## PRAXIS

Oraintxe dator egoki, len erabaki gabe utzi degun auzi bat erabakitzea: deikia askatu tankerakoa danean (ots, idazkien asierakoan, itzaldien sarrerakoan, eta deikiak berak inguruko berboarekin zer-ikusirik ez duanean alegia) ORI'rik ote-dagokion ala ez. Eta ala izan ezean, zar dagokion erriaren arauz, erriak egin oi duanaren araueran.

Bi gertakizun, bereizi bear ditugu: deikia, askodun, plural dala; eta deikia bakar dala.

Askodun danean, oraintxe esan deguna dagokio: artikulu -ak'en ordez, -ok bat ipintzea, arako ORI aren errañu ta gogoangarri bezela. Adibidez, Itzaldien asieran: *Nere entzule maiteok, Jaun-andreak*. Eta, izan ere, *Entzule maiteak* eta *Jaun-andreak* esatean, bai bait-dirudi urrutiko norbaitzueri mintzatzan gatzazkiola; entzuleak, berriz, ez bait-dira urrutiko, urrean bait-daude iztunagandik: izketa-lagun bait-ditu iztunak.

Deikia bakarra danean, ordea, zer egin oi du gure erriak?

Begira dezaiegun, len aipatu ditugun adigarri aiei: *Bai, motell; Aizu, lagun zar; Kaixo, gizon*. Ori litzake jatorren. Olaxe, artikulu-gabe. *Milia Lastur ko-ta* bezela. Eta neurri ontan ez leudeke gaizki onako idazki-asiera oiek: *Adixkide; Adixkide maite; Agur, adixkide; Seme: Agur, seme; Seme maite; Gure seme maite; Aita maite; Ama kutun; Lagun zar; Agur, lagun zar; Agur, lagun; Agur Nagusi*; etab., etab. Olaxe, artikulu gabe. Berriz esanda ere, -a atzizkiak, -a artikuluak, urruti-antxa ematen bait-dio ukitzen duan guztiari. Eta, idazle-irakurleak, elkarrengandik urruti egon arren, idazkiaren bitartez urko egiten bait-dira, izketa-lagun egiten bait-dira...

Eta norbaiti gogor-antxa baleritzaio *Muy Sr. mío, nera Jaun* soillik ipintzea, erantsi dezaiola *agurgarri* edo *maitagarri* bat. Eta ori egin ezkerro, ez derizkiot gogor egingo zaionik; ala nai izan ezkerro, *Nere Jaun maitagarri* edo *agurgarri* ipintzea, naiz-ta baita adjetivotxo oiei ORRI bat gañeratzea ere *Agur* batekin; adibidez: *Agur, nere Jaun ogurgarri orri*: edo-ta *Nere Jaun maitagarri orri, ogur...* Nolanai dala, artikulu urrutiratzaille -a ura gabe. Olaxe litzake jator. Bañan baita gutxien oitua ere, len ere esan dizutedan bezela. Gutxien oitu, bañan jator...

Eta bukatzera noa oraintxe.

Ez dakit zergatik, bañan artikulu gabeko esaera oiei antziñako usai ta kutsu aundiago arkitzen diegu. Artikuludunai baño aundiago.

Geiago oraindik. Olakoetan — ots, esaera bi, elkarren bestelakoak, ola elkarren ondoan bizi dirala ikusten degunean—, bata etorkia ote-dan, eta bestea jatorra, uste izan oi degu. Eta etorkia indarrean datorrela, mardul datorrela; jatorra, berriz, galtzen dijoala, makaltzen, eta ola, deiki-tankera bi oietan ere, artikulu gabea (*motell*) deritzaigu guri esaera jator; eta artikuluduna (*Jauna*), etorki. Bañan ala berean aitortu bearra dago,





-Maria, nik zer opa  
eder galant ORRI?

-Maria, eder galant  
ORREN ama nun da?

-Maria, eder galant  
ORREKIN nai nuke...

-Maria, eder galant  
ORREGAN daukat nik...

-Maria, eder galant  
ORRENGANA nai det...

-Maria, eder galant  
ORREGANDIK urrun...

-Maria, eder galant  
ORI GABE ezin det...

olaxe, ORI, ORREK, ORRI, ORREN, ORREKIN, ORREGAN, ORRENGANA, ORREN-  
GANDIK, ORI GABE, etab. etab.

Olakoxea bait-da gure Deikia, gure Deiki jatorra.

Eta bukatu det gaurkotz.

LEKUONA'tar Manuel Apaizak

